

MADRILGO 2011. JMJ

Izugarrizko arrakasta positiboa izan dau 2011k. JMJ. Mundu guztitik etorritako bi milioi gazte alkartu dira Madrilen Aita Santuaren deiari erantzunez. Horrenbeste gazte jendetzarik ez da bildu inoiz Espainiako lurraldeetan. Ez dago beste lider bat munduan Aita Santua izan ezik hainbeste gazte batzeko gauza danik. Gazte horreen asmoa eta grina eta helburua Kristo eza-gutu, maitatu eta serbitzea da Elizaren bihotzean. Bizi bizirik dihardu Eliza Katolikoak.

Ni neu ez naz egon Madrilgo 2011. JMJn. Baina ahal izan dodanik ondoen jarraitu izan dot komunikabideen bitartez. Une hunkigarriak bizi izan ditut. Bihotzeraino sartu jataz gazte horreen poza, sinismena, pazientzia, alaitasuna, nekeak. Txundituta laga nabe.

Gainera 1989. JMJn bizi izandako esperientzia sakonak berreskuratu ditut. Larreako 55 gaztekin Kompostelan izan nintzan Joan Paulo II.aren deiari erantzunez. Han bizi izan genduzan gauza ederrak hor barnean diraeue oraindino. Holako momentuak gazteengan pastoralki itzelezko eragin ona izten dabe. Gazteak gazteekin sinismenean sendoago sentitzen dira. Ikusten dabe ez dagozala bakarrik eta kristau fedea alkartean bizitzeko bokazioa ezinbestekoa dala.

1989. JMJ eta 2011. JMJ

Konturatu naz, 1989 JMJtik 2011 JMJra, gauzak asko aldatu dirala. Ez bakarrik gazte kopuru aldetik begiraturata. Orduan milioi erdi inguru izan ginan. Aurtengoan, ostera, bi milioitik gora izan dira. Antolakuntzak hobera egin dau. Batez be gazteak espiritualki gertatzeko orduan.

Bertara joan diran gazteak, urtebete baino gehiago aritu dira espiritualki prestatzen. Horixe erakutsi deuskue hemen, Larrean, astebetean izan doguzan gazte atzerritarrak. Gehienak frantsesak eta besteak ingelesak. Guztiz berrehundik gora. Euron portaera ikusita, ezin goraiatu besterik egin. Larreako eliz zelaia eta inguruak, neure bizitzan ez ditut hain garbi ikusi. Ez txakur gorotzik, ez paperik, ez bestelako lohikeria eta narraskeriarik. Nabari izan da, gazte fededun landuak izan doguzala abuztuan geure artean.

Gazte bakotzak ekarren “Juventutem Madrid 2011” deritxon liburuxka. Nahiko mardula, 200 orrikoa. Lehenengo orrietan, Aita Santuak 2011. JMJrako zuzendutako mezu bikaina osorik. Ondoren 2011. JMJko zaindarien bizitza laburtuta. Besteak beste bi euskaldun eta bi karmeldar: Loiolako Iñazio, Xabierko Frantzisko, Avilako Teresa eta Joan Gurutzekoa. Baita Meza Santuaren katekesia eta Eukaristiaren zatien eta errituen azalpenak be. Zer esanik ez, autortzari buruzko katekesia eta kontzientziaren azterketa zorrotza be.

Gero otoitza zer dan eta zelan egin be bai, “lectio divina” azpimarratuz. Gogoetak egiteko hainbat pentsamendu eder be badakaz. Esaterako, Teresa Liseuxkoarenak edo San Bernardorenak edo San Agustinenak edo Frantzisko Asiskoarenak edo Charles de Foucauldenak eta abar. Betiko otoitz ezagunenak be ez dira bertan falta: Gure Aita, Agur Maria, Aintza, Kredoa, Salbea, Errosario Santua, Angelus eta Gurutz bidea.

Liturgi otoitza

Gure Karmengo Amaren Santutegian ospatu izan dabez egunero meza santua, baita bezperak eta konpletak be. Fransesen duintasuna elizkizunetan beti izan jataz atsegin. Hegoaldeko elizkizunak ez dauke mugaldekoeen fintasunik. Liturgi ospakizunetan, iparraldekoak baino gu zakartsuagoak garela dirudi. Hori garbi ikusi izan dot gazte honeengan be. Elizan sartu-urtetean Aitaren egitean edo patxadaz Jaunaren aurrean belaunikatu barik ez dot ikusi gazte erromesik. Elizkizunetan agertu izan daben ganoreagaz, zornotzarrok benetan liluratuta eta harrituta utzi gaitue.

Aldean erorien liburuxkak 100dik gora kantu be baekazan. Kantu sorta ederra. Asko kantu erlijiosoak eta beste asko aisialditarako kantuak. Mezetan eta bezperetan eta konpletetan, gehienbat kantu gregorianoa erabili izan dabe . Horretarako 50 lagun inguruko gazte korua, bere zuzendari eta organistagaz. Organista oso kapaza, trebea benetan. Frantziako katedral batetako organista titularra genduan berau.

“De Angelis” eta “Cum jubilo” eta “Orbis factor” mezak entzun dira Eukaristiaren ospakizunetan. Koruko abeslari erdi-koak “Liber usualis” erabilten eben beti abestuteko. Elizkizunak hasi aurretik kantu saioak eukeezan. Urteotan ez da hain ondo abestu Larreako gure santutegian.

Berbaldiak eta joan-etorriak

Hemen izan doguzan gazteak, egunero izan dabez euren berbaldiak eta joan-etorriak. Lehenengo egunean, Aita Santuak JMJ 2011.rako bidalitako mezu ederra izan eben aztergai. Bigarren egunean, “Jaungoikoa maitasunaren iturria” erabili eben gazteen arteko maitasuna aztertzeke. Beste bi egunetan “Jesukristo” izango da gai nagusia. Hurrengo egunean, “San Paulo eta barneko bizitza”, Espiritu Santuaren eragina nabarmenduz.

Azkeneko berbaldia, Andra Mariaren Zeruratzearen jai bezpera zanez, Andra Mariari buruz izan zan.

Berbaldietan metodo berbera erabilten eben. Gazteak taldeka banatu eliz aurreko zelaian. Eta talde bakotxean abade bat arduratzen zan gaia azaltzeko. Eta ondoren gazteen galderei erantzun.

Baita gure inguruak ikusteko joan-etorriak be egin dabez. Bilbora. Loiolara, Gernikara, Urkiolara. Euskal Herriaren pasaiaz liluratuta geratu dira. Gure turismoa bultzatzeko be balio izan dau 2011. JMJK. Gurea eta Espainiakoa, inolako zalantzarik gabe.

Kantu gregorianoa

Gehien gustatu jatan berbaldia kantu gregorianoari buruzkoa izan zan. Elizan bertan emon eban unibertsitateko irakaslea dan Patrick Banken jaunak. Gregorianoaren artea eta sen estetikoa kontuan hartu arren, hitzaldiaren ideia nagusia eta aipagarriena bere espiritualitatea izan zan. Kantu gregorianoaren azpian dagoan arnasa eta arima Jaungoikoa berbera dogu.

Ederra benetan emon euskun gregorianoaren definizioa: “Gregorianoa otoitza da, Elizaren otoitz kantatua”. Paulino Nolakoaren pentsamendu esanguratsu eta sakon bat be gogoratu euskun hizlariak: “Gure arte bakarra fedea da eta Kristo gure kantua”.

Beste gauza guztien gaintik, gregorianoa Elizaren “otoitz kantatua” danez, ez dauka beste helbururik Jaungoikoaren misterioak, hau da, bere Kreazioa, bere Semearen gizon egitea eta heriotza eta biztuera, eta bere presentzia gudan Espiritu Santuaren bidez, eten barik goratzea, eskertzea, handiestea, bedeinkatzea, jaurestea eta gurtzea baino. Jaungoikoaganako esker ona eta dohaintasuna berezkoak ditu kantu gregorianoak.

Metodo aldetik be, berbaldia oso atsegin egin jatan. Ez jatan bape aspergarri egin. Hitzaldian zehar, azalpenen arabera, tar-teka-tarteka, lau eliz-gizon gaztek eta beste hiru laiko gaztek, euren eskuetan baktokak bere “liber usualis” dituela, arduratu ziran gregorianoaren melodi hunkigarrienak abesten. Ez neban holako gozamenik espero. Karrerako zenbat oroimen nostalgiko etorri jatazan burura!

Abutztuko Andra Mariaren jai egunean, “Cum iubilo” meza santua abestu ondoren, eguerdirantz urten eben Madrilera, bertan mundu guztitik etorritako gazteekin Aita Santuaren gidaritzapean, kristau sinismena sendotu eta pozaren pozez Jau-naren eguneroko gurutzea lepoan hartu eta aurrera segitzeko.

Zornotzarrok ondo portatu gara hemendik igaro diran erro-mes gazteekin. Eta eurok be itzelezko inpresio ona itzi deuskue.

2011. JMJ gaztediaren arrakasta ikusirik, batzuk tripak jaten jarri dira. Betiko “txakur flautak” ditugu. Ezin dabe irunsi hainbeste kristau gazte eliztar izaterik. Holako momentuak aprobe-txatzen dabez euren merkantzia ustela saltzeko. Euren buru-txua agnostikotzat altxaturik, gaurko “jainko txiki” bihurtu jakuz. Eurak eta ez beste inork ez dauko hemen eskubiderik erabakitzeko nork jaio behar dauan eta nork ez esateko. Nork bizirik jarraitu eta nork ez, zer dan politikoki zuzena eta zer ez, zer dan Elizaren betebeharra eta zer ez... Gorrotoz beterik eta inbidiaz jota kukurruka ari dira...

Baina jakin begie, Madrilen Aita Santuagaz batu diran gazteak ez daukeela gorrotorik. Jesus Nazaretekoaren berbak bihotzean daroez sartuta: “Maite egizue zuen arerioak, egizue otoitz aurrean zarabiltzanen alde: bere eguzkia on eta gaiztoen gainera atarazoten eta euria on eta gaiztoen gainera eginazoten dauan zeruko zuen Aitaren seme izan zaitezen”.

A. Olea